

Brownie Kluba

Laguntzaile Trebeak



desclée

Ezagutu

Brownie*

Neskak



Katie

Katie,
Graceren bikia,
oso kirolaria da,
eta lehiatzea eta
irabaztea gustatzen
zaio. Brownie intsignia
guztiak lortu nahi ditu,
eta bere Tribua
Azeriak dira!

Jamila

Jamilak
neba gehiegi
ditu, eta horregatik
atsegin du Brownie
kluba, **MUTILAK
EZ DAUDELAKO
ONARTUTA!**
Jamila Azkonar
bat da!



Ellie

Trebea da benetan arteetan eta eskulanetan. Ostadar bat izan zen, eta lagun berriak egitea atsegin du. Ellie Kirikino bat da!



Animalien zale porrokatua da. Charliek txerri ginear bat du, Koska izenekoa. Brownie galdera-lehiaketak atsegin ditu, baita Tribu Topaketak ere. Bere Tribu Katagorriak dira!

Charlie

Grace

Grace Katieren bikia da eta balletaren zale amorratua da. Graceri Brownie txangoetara joatea gustatzen zaio, eta Untxi bat da!





1. Atala

Astearte arratsaldea zen, Badenbrigekeko Lehenengo Brownie Unitatearen bilera bat hasten ari zen, eta neska guztiak gogo biziz kantatzen ari ziren. Vicky eta Sam, Brownie zuzendariak, eskuetatik helduta, arku bat egiten ari ziren besoekin, eta Brownieak azpitik igarotzen ari ziren, irribarretsu kantatzen.

Abestiaren amaieran, Brownieak Brownie Erdigunean jarri ziren, Tribuek bilera bakoitzaren hasieran elkartzen ziren guztietan egiten zuten bezala. Tribuak Brownie unitate bat osatzen

zuten taldeak ziren.



Badenbridgeko Lehenengo Brownie Unitateko Tribuak Azkonarrak, Azeriak, Katagorriak, Untxiak eta Kirikinoak ziren.

Azken Browniea Erdigunera iristen ari zela, neska guztiek eskuineko eskua altxatu zuten eta isilik geratu ziren.

—Ongi etorri! —esan zuen Vickyk irribarrez—. Benetan pozten naiz zuek ikusteaz. Eseri, mesedez, eta gaur zer egingo dugun azalduko dizuet.

Jamilak, Azkonarretako kide batek, bere lau lagun minei irribarre egin zien zirkuluaren beste aldera. Honakoak ziren: Charlie, Katagorri bat; Grace, Untxi bat; Ellie, Kirikinoen kide bat; eta Katie, Azeri bat. Bost neskek oso denbora gutxi zeramaten Brownie klubean, eta jarduera dibertigarri guztietan parte hartzea gustatzen zitzaien.

—Lau aste barru mundu osoko Brownieon egun garrantzitsu bat ospatuko dugu —esan zuen Samek.





Erdigunean, Brownieak egon ezinik zeuden eserita, zer esango ote zien pentsatzen.

—Izan ere —jarraitu zuen Samek—, otsailaren 22a Munduko Gogoeta Eguna da.

Brownie berrietakoren batek ba al daki zergatik esaten zaion Gogoeta Eguna?

Katiek eskua jaso zuen.

—Mesedez, Sam!
—eskatu zuen, eskua gogo biziz astinduz.

—Bai, Katie? —esan zion Samek irribarrez.

—Gogoeta Eguna deritzo gogoeta egin behar dugulako? —esan zuen Katiek.

—Beno, gutxi gorabehera... —erantzun zion Samek—. Baina inork esan ahal dit zer gai bereziri

